# *Euskararen Gaitasun Agiria*

## *IDAZLANA 04-03-06*

1. *Argi idatzi behar da, eta albait garbien.*
2. *Idazlanak gutxienez 300 hitz izan behar ditu.*
3. *Idazlanaren kalifikaziorako ondoko hiru alderdi hauek izango dira ardatz:*
   *a) gaiaren eraketa eta garapena;*
   *b) hizkuntza-aberastasuna eta zehaztasuna;*
   *c) zuzentasuna.*
4. *Orrialde bat izango duzu gidoia egiteko, apunteak biltzek ... Ez da zuzenduko.*
5. *Hurrengo orrialdeetan bi gai proposatzen zaizkizu, bat aukeratu eta garatzeko. Gaiak garatzeko, laguntza moduan, dossier bana eta puntu batzuk dituzu: galderak, gogoetak, iritziak... Ez dira nahitaez kontuan hartu beharrekoak; zuk zeuk aukeratutako bestelako ikuspuntu edo alderdi batzuetan oinarriturik ere egin dezakezu.*
6. *Aukeratutako gaia garatzeko iritzi askatasuna duzu. Beti ere, begirunez joka ezazu: saihestu jarrera sexistak, homofoboak, arrazistak...*

# GAIA PRENTSA ARROSA

**"Bihotzeko aldizkariak", telebista programa ugari...**



Lecturas, 2.670. zk.

Itxarongela guztietan egoten da "bihotzeko aldizkari" deiturikoren bat.



Lecturas, 2.670. zk.



Lecturas, 2.670. zk.

Audientziarik gehien prentsa arrosari buruzko programek.

Zeloak, infidelitateak, maitemina, engainuak... ehunka konfidentzia etxean sartuta teknikaren eta prentsaren bidez.

Bihotzeko prentsan lan egiten dutenak dira gehien irabazten duten kazetariak.




Tele Deia, 389. zk. 2004

**Gehienetan albisteak zerikusi gutxi izaten du pertsonaiaren kualifikazioarekin edo burutu duen lanarekin.**




Gaztetxulo, 38. zk. 2004

*Orri honetan dituzun testuak irakurri ondoren, idatz ezazu gaiari buruz (300 hitz, gutxienez). Ondoko puntu hauek erabil ditzakezu:*

- Nolako gizartea, halako prentsa.
- Intimitate-eskubidea. Esklusibak. Bideo-kamerak nonahi. Non dago muga?
- Irakurlearen edo ikus-entzulearen profila.
- Merezimendu berezirik gabeko jendea edozein komunikabidetan. "Sasifamatuak".
- Euskarazko prentsa arrosa?

# GAIA — Ezkongabeak ezkonduen pare



**EAEn Izatezko Bikoteen Legea**



HABE 207 zk.

Eliza Katolikoak eta beste zenbait gizarte-sektorek familiaren aurkako erasotzat jo dute erabakitakoa.



HABE 233 zk.



HABE 233 zk.

EAEko Izatezko Bikoteen Legea: ezkonduek zein ezkongabeek eskubide berberak.

Testamentu bateratua egin ahal izango dute.

Bikote heterosexualez gain, bikote homosexualek ere izango dute umeak adoptatzeko eskubidea.



HABE 207 zk.

*Orri honetan dituzun testuak irakurri ondoren, idatz ezazu gaiari buruz (300 hitz, gutxienez). Ondoko puntu hauek erabil ditzakezu:*

- Nolako gizartea, halako familia-eredua.
- Izatezko bikote heterosexualak / Izatezko bikote homosexualak.
- Izatezko bikoteen lege-egoera.
- Eskubide berdintasuna: oinordekotza, pentsioa, adopzioa...